

## 2.- BALIOA

- Bertako produktuak dira, "km0"-z ezagutzen ditugun produktuak hain zuzen ere. Hori ziurtatzeko fidagarriak diren agiriak erabiliko ditugu, eta gure produktuak agiria dutenak bakarrik izango dira. Gainera, gure inguruko produkzioa bultzatu nahi dugu, eta bide batez, bertako nekazaritzari, arrantzari eta abeltzaintzari batez ere bultzadatxo bat eman.
- Aplikazio bidez eskatu daiteke janaria, horrela, bezeroen erosotasuta bermatu ahal izango dugu. Gainera, gaur egungo teknologiak erabiliz, biztanleriaren portzentai handiak eskatu ahal izango du.
- Etxera eraman daiteke, baita jendeak nahi duen lekura ere, gure ezaugarri nagusienetako bat bezeroen erosotasuna bermatzea delako. Hala ere, enpresan bertan ere jaso ahal izango da.
- Janaria prestatuta edo prestatu gabe hartu daiteke, bakoitzaren gustura.
- Jaki begetarianoak eta beganoak ere guztien eskura egongo dira bakoitzaren elikadura ohituren arabera. Hauentzat, eskaintza berezia izango dugu gainera, hau da, sekzio berezi bat beraien gustu eta ohituretarako.

- Produktu freskoak dira, hau da, ez dira hozkailuan egoten prestatu haurretik, horrela, garaian garaiko produktuak direla egiazta dezakegu, denboraldiaren arabera hain zuzen ere.
- Enpresaren balioa kuantitatiboa izango da. Gure balioa prezioen arabera neurtuko delako.

